

2022ko IKAZKIN TRAIL MENDI LASTERKETAN PARTE HARTZEKO ARAUDI OFIZIALA

- Ikazkin Trail Mendi lasterketa, Aretxabaletan Irailak 10ean goizeko 10:00etan ospatuko da.
- Lasterketan 18 urte beteak dituen korrikalariak parte hartu ahal izango dute eta gehienez 300 parte hartzaile izango dira.

1.- IZENA EMATEKO

- Izen-emateak Internet bidez bakarrik egingo dira www.rockthesport.com web orrialdean, 2022ko Irailaren 3a arte. Epealdi hori lehenago itxi ahal izango da, azken eguna baino lehen 300 atletak izena eman badute.
- Inskripzioaren prezioa 25€ da eta ordainketa inskripzioa egiten dan momentua egin beharko da.

2.- DORTSALEN BANAKETA

- Dortsalen banaketa lasterketaren aurreko egunean (irailak 9) 19:00etatik 21:00tara eta egun bertan egingo da (irailak 10) Aretxabaletako Durana kalean 07:30atik 09.30arte

3.- KATEGORIAK

- EMAKUME ABSOLUTOAK
- GIZONAK ABSOLUTOAK

4.- DORTSALAK

- Dortsala bularrean eraman beharko da, agerian, ondo ikusteko moduan, tolestu gabe eta publizitatea ezkutatu ezta aldatu gabe. Dortsalari esker, helmugan ipinitako zerbitzuak korrikalariarentzat (dutxak, ...) erabili ahal izango dira.

5.- DENBOREN KONTROLA, SEINALEAK eta KONTROL-GUNEAK

- Proba bera dortsalean erantsita egongo den txip elektronikoaren bitartez kronometratuko da.

6.- SEGURTASUNA

- Ibilbideko zenbait guneetan, antolatzaileek langile espezializatuak jarriko dituzte, parte hartzaileen segurtasuna bermatzeko. Derrigorrezkoa izango da behar bezala identifikatuta egongo diren langile horiek agindutakoa betetzea.

- Proba bertan behera utziz gero, antolakuntzako langileei jakinarazi beharko zaie.
- Ibilbideko gune estrategikoetan, medikuak eta anbulantziak jarriko dira, beharrezkoa denean esku hartu dezaten.

7.- IBILBIDEA

- Antolatzaileek ibilbidea aldatzeko ahalmena izango dute, beharrezkoa izanez gero.

8.- IRTEERA

- Irteera Aretxabaletako Durana kalean izango da goizeko 10:00etan.

9.- ZAINDEGIA

- Korrikaliek motxila guen itxi batean utzi ahal izango dute eta amaitzean froga bertan jaso.

10.- ANOAGUNEAK

Ibilbidearen zehar 5 anoagune izango dira:

- Ang 1. Km 3,5 Arientza. LIKIDO
- Ang 2. Km. 7 Kargaleku LIKIDO
- Ang 3. Km. 10 Degurixa. SOLIDO/LIKIDO
- Ang 4. Km. 13,7 Muñakolatsa txabola LIKIDO
- Ang 5. Km.18 Urkulu LIKIDO

11.- LASTERKETA UZTEA

- Anoagune batera oinez gerturatzea eragozten duen lesioa edo istripua dela eta lasterketatik atera behar izanez gero, antolakuntzarekin harremanetan jarri beharko duzu erreskateko operatiboa aktibatzeko.
- Lasterketaren ardurandunek korrikalari bat gelditu ahalko dute honen gaitasun fisikoak edo teknikoak lasterketan aurrera jarraitzeko behar den mailaren azpitik daudela antzematen badute.

12.- SARIAK

- **Emakumezko 1.** sailkatua: Garaikurra eta txapela

- 2.Emakume sailkatua: Garaikurra
- 3.emakume sailkatua: Garaikurra
- **Gizonezko** 1. sailkatua: Garaikurra eta txapela
- 2. Gizonezko sailkatua: Garaikurra
- 3. Gizonezko sailkatua: Garaikurra

13.- ERANTZUKIZUNAK

- Antolatzaileek ez dute inolako erantzukizunik emango parte-hartzailei, galdutako, hondatutako edo lapurtutako materialei buruz. Ez ditu ere kudeatuko kirol materialetan jasandako kalteen ondorioz aurkeztutako erreklamazio edo demandetan. Ikazkin Traill proban izena eman duten lasterkariek borondatez eta euren erantzukizunpean parte hartuko dute. Hori dela eta, antolatzaileek, laguntzaileek, babesleek eta beste parte-hartzaile batzuek ez dute inolako erantzukizun zibilik izango lasterkariekin eta euren oinordekoekin, eta, horrez gain, azken horiek ez dituzte inolaz ere salatuko.
- Atleta parte-hartzaileek antolatzaileei emandako datuak egiazkoak direla ziurtatuko dute, eta datuak ondo edo osorik ez egoteagatik sortu litezkeen ondorio guztiak hartu beharko dituzte euren gain.
- Ikazkin Trail lasterketako antolatzaileen iritziz, atleten erantzukizuna izango da lasterketari aurre egiteko moduko egoera fisikoa edukitzea bertan parte hartzean.

14.- ALDAKETAK

- Antolatzaileek edonoiz aldatu, zuzendu edo hobetu ahal izango dute araudi hau. Izena ematean, agerikoa da parte-hartzaileak araudi honekin bat datozela.
- Segurtasuna dela eta, antolatzaileek eskubide osoa izango dute, segurtasunagatik edo ezinbesteko arrazoiengatik lasterketaren ibilbidea eteteko, laburtzeko, neutralizatzeko edo aldatzeko.

15.- IRUDI-ESKUBIDEAK

- Antolatzaileek eta babesleek eskubide osoa izango dute, lasterketan ateratako argazkiak eta bideoak era guztietako komunikazio-euskarrietan argitaratzeko

(liburuxkak, kartelak, egunkarietako artikulak, web orriak...) eta probaren berri emateko.

16.- INGURUMENAREN ZAINKETA

- Ikazkin Trail-ek ingurumena errespetatzeko 100% konpromisoa du eta helburua jasangarritasun parametroak ahalik eta gehien betetzen dituen proba izatea da. Partehartzaileek ahalik eta hoberen zaindu beharko dute ingurumena, baina, batez ere, hondakinak botatzeko orduan (edalontziak, botilatxoak,...) lasterketa bera ingurune naturalean garatuko da eta. Beraz, ontziak edo edukiontziak erabili beharko dira eta lasterketan bertan anoagunetan edo leku egokietan utzi beharko dira.

17.- INFORMAZIO OROKORRA

- 1.- Kirol-proba honetan parte hartzeko, behar den moduko egoera fisikoa eduki beharko da.
- 2.- Antolatzaileek parte-hartzaile guztiei gomendatzen die proban parte hartu baino lehen beharden moduko kirol-azterketa medikoa egitea.
- 3.- Proba honetako parte-hartzaileek mendiko lasterketetako berezko arriskuei aurre egin beharko diete: lurzoru irregularrak, maldak...
- 4.- Parte-hartzaileek antolatzaileek agindutako guztia bete beharko dute, baita proban zehar ematen dizkieten segurtasun-neurriak ere.
- 5.- Antolatzaileek ez dute inolako erantzukizunik izango parte-hartzaileek jasandako edo sorrazitako kalte edo istripuetan. Edonola ere, ahal duten guztia egingo dute halakorik ez gertatzeko.
- 6.- Ikazkin Trail lasterketan parte hartzeko, antolatzaileek argitaratutako araudi hau onartu beharko da.